



**ERAIKINAREN DATUAK**

**Izena eta aldaerak:** Martindegia, Toloxania.  
**Auzoa, udalerria:** Martindegia, Hernani.  
**Dolarearen kokapena:** Etxe berriaren ondoan, ekialdera.  
**Jabea:** Joxe Tolosa.

**DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK**

**Kronologia:** XX. mendekoa.  
**Iraunaldia:** Duela 6 bat urte arte egiten zuen sagardoa.  
**Zenbait datu:** Getariako kaletik ekarri zuen duela 50 bat urte.  
**Egungo erabilera:** Etxearen kanpoaldean dago erakusketa moduan, lau zutabek eusten duten bi isurkiko estalki baten azpian babestua. Martxan jartzeko prest dago, eta egun batean berriro sagardoa egiteko asmoa dute.  
**Kontserbazio egoera:** Ona.

**TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**

**Dolare-prentsa:**  
Askaren erdian zutik jarritako burdinazko ardatz hariztatuan gora eta behera dabilen mekanismo motordunak osatzen du prentsa. Altzairuzko perfil bikoitzaren gainean dagoen motorrak hainbat polea, uhal, koroa-horzdunak eta torloju amaigabeen bidez mugitzen du estutzeko mekanismo guztia. Azulejoz dago estalia hoormigoizko aska.

**Dolarearen osagarriak:**

**Argazkiak:** 19.01, 19.02.

**GAKO-HITZAK**

Trakzio mekanikoa, Hernani.

**OHARRAK**

Tolareak matxaka ere baldin bazuen, ez dago ikusgai.

**GALDETEGIA**

**Informatzailea:** Joxe Tolosa.  
**Datu bilketaren egilea:** A.Agirresarobe, J.Tellabide.  
**Datu bilketa data:** 2010eko martxoaren 15a